

Colour & Trim proiektuen sari banaketa

2014/07/10

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Graduako 46 ikasleek euren proiektuak aurkeztu dituzte, Industria Diseinuko Berrikuntza Zentroak (DBZ) Maier S. Coop-en laguntzarekin antolatutako Colour & Trim formazioaren barnean. Horrela, ikasle bakoitzak ikasturte honetan Premiun alderdiarekin, Colour & Trim formazioan oinarrituta eta Maier Technology Centrek proposatutako planteamendu eta gaiarekin proiektu oso bat garatu dute.

Ikasleek Colour & Trim diseinu proposamenak landu zituzten, zeintzuetan Premium kontzeptua garatu zuten, automobilgintzaren sektorerara emozioa eta logika (reason & emotion) eramanez.

Landu ziren proposamenak ibilgailuaren barruko eta kanpoko produktu hauetan zentratu ziren:

- Ibilgailuko aurrealdeko aginte-panela. .
- Atearen paneleko heldulekua.
- Aurrealdeko modulua.
- Ibilgailuko alboetako gainlehoak.

Materialen azterketa, berrikuntza, grafikoaren aplikazioa, detailearen garrantzia eta osotasunaren armonia bezalako alderdiak hartu ziren kontuan proiektuak baloratzeko orduan.

Zazpi izan ziren nabarmendutako proiektuak hainbat kategorietan banatuta:

Proiektu onena:

- Aitor Calvo, Shinning/Mat proiektuarekin
- Beñat Garay, Substantiated Indulgence proiektuarekin
- Aitor Urbina, Boreal Heart proiektuarekin

Materioteka onena:

- Jone Ezcurra, Quiet Quality proiektuarekin
- Aitor Urbina, Boreal Heart proiektuarekin

Berritzaileenak:

- Xabier Abel, Flat Faces proiektuarekin
- Nerea Asensio, Peacock proiektuarekin
- Ane Castaño, H2O Prem proiektuarekin



Colour & Trim proiektua